

150 ikaslek hartu dute parte Ekiten jardunaldian

2011/05/24

Ekintzailetasuna Mondragon Unibertsitatearen misioan sartzen da bete-betean --horixe esanez hasi da Josemari Aizega MUko errektoreorde akademikoa--, eta horregatik antolatzen du urtero Ekiten jardunaldia, goiz bateko topaketa, non hiru fakultateetako ikasleak elkartzen baitira ekintzailetasunaz aritzeko.



Eneko Knörr

Eneko Knörr Ideateca enpresako burua da, eta hitzaldian bere ibilbidea azaldu du ekintzaile gisa. Lehenengo porrotaren ostean, Hostalia proiektuarekin izandako esperientzia kontatu du, beste enpresa handiago bati saldua. Eta Ideateca, enpresa arrakastatsua bideojokoen alorrean. Azken bi urteotako arrakastaren ostean, gaur egungo erronka Silicon Valley-ra joatea. Enekok biziki animatu ditu ikasleak ekintzaile izan daitezen, eta hamar aholku eman dizkie. "Enpresa bat sortzea gogorra da, baina egin ahal duzue".



Talde dinamika

Enpresagintzako ikasle talde batek gidatuta, jardunaldian izan diren ikasleek parte hartu dute talde dinamika batean. Zer proiektu egingo zenukete MUko bizitza unibertsitariora hobetzeko? Horixe galdetu zaie. Ikasleak taldetan jarri dira, eta hainbat proposamen landu dituzte, denen aurrean aurkeztu dituztenak.

Joseina Etxeberria

Amaitzeko, Joseina Etxeberria etorri da, Gaztea irratiko esataria. Joseina oso ezaguna da, eta entzule piloan izan ditu. Bere esperientziaz hitz egin du --21 urte daramatza Gaztea irratian lan egiten--, talde lanaz, disko etxeekin dituzten arazoak, euskara erdaldundua erabiltzeko arazoak, etab. Noiz edo behin abesti bat ipini eta hainbat teknika erakutsi ditu. Jendeak oso gustura jarraitu du bere hitzaldia, eta bera ere horrela joan da, pozik.

